



PRENTSA OHARRA

AMURRIOK GUSTU ETA ADIN GUZTIETARAKO JARDUERA ASKOREKIN OSPATUKO DITU JAIK

Amurrión, 2018ko uztailearen 18an. Herriko jaiak hasteko hilabete baino gutxiago falta denean, Amurriok dena du prest txupinazoa jaurtitzeko eta giro bikainez eta gozamenez betetako sei eguni hasiera emateko. Adin eta gustu guztietarako jarduera egitarau zabala aurkezten da. Abuztuaren 12tik 17ra, nagusiek eta txikiak musika eta kaleko antzerki hobereenez, kirol jardueraz, karroza lehiaketa tradizionalaz eta gastronomia lehiaketez gozatu ahal izango dute, besteak beste.

Jaiak hasi baino lehen, motorrak berotzen hasiko gara, futbol eta pilota partiduekin, besteak beste. Azken horien artean abuztuaren 11n, larunbatean Urrutik eta Larunbek Bengoetxearen eta Imazen kontra jokatu dutena azpimarratu behar da. Gainera, egun horretan bertan, umeei euro bateko prezio berezian gozatu ahal izango dute atrakzioez. Gaeuz, "Los Blue Yeyés" taldeak tributua eskainiko dio 60ko hamarkadako pop rock-ari Juan Urrutia plazan.

Musika ikuskizunak jaietako programazioaren ezinbesteko parte dira. Azpimarratzekoak dira Doctor Deseo eta Glaukoma taldeen kontzertuak, abuztuaren 13an eta 14an, hurrenez hurren. Talde horien teloneroak Amurrioko lehiaketako irabazleak izango dira. Korrontzi abuztuaren 15ean arituko da, eta Garilak 26 taldeak eta DJ Rubak eskainiko duten berbena San Roke egunean izango da.

Abuztuaren 13an umeei zuzendutako hainbat jarduera izango ditugu udal parkean, puzgarriak, tailerrak eta aparraren jaiak, besteak beste. Arratsaldean, nerabeek elikadurari buruzko tailerra eta parcouer erakusketa eta tailerra izango dituzte Juan Urrutia plazan.

Kaleko antzerkia eta jarduera herrikoiak

Ohikoa denez, antzerkiak, dantzak eta arte eszenikoak, orokorrean, lehentasunezko lekua izango dute jaietako programazioan. Abuztuaren 14an Barsanti konpainiak "El Deshaucio" lana aurkeztuko du. Ostegunean, abuztuaren 16an, Industrial Teatrera konpainia izango da "Náufragos" antzezlanaren eszenaratuko duena. Dantza konpainiak bere "Barrock" dantza ikuskizuna eskainiko du abuztuaren 17an, ostiralean.

Jarduera herrikoiek ere protagonismo berezia izango dute jaietan. Abuztuaren 14an 2.300 pertsonarentzako odolki jana egongo da, eta abuztuaren 16an karroza lehiaketa. Gastronomia lehiaketei dagokienez, abuztuaren 14an, asteartean, marmitakoarena egingo da, eta ostiralean, 17an, tortilla eta bakailao lehiaketak.